

7. Bakoitzari berea, gizalegea Iberiar tuak eta zeltapetuak

Juan Inazio Hartsuaga



Enpresa Kudeaketa eta Administraritzan lizentziatua, Euskal Filologia Ikasketak Dosnostiako EUTGn, DEA Hizkuntzalaritzan Pariseko École des Hautes Études en Sciences Sociales (EHES) eskolan, Docteur en Linguistique, Études Basques, Paubeko Unibertsitatean, Euskal eta Indo-europar mitologia ikerketak gaiarekin.

Argitalpenetan lau arlo nagusi landu ditu: Euskal mitologia (Euskal mitologia konparatua...) antropologia, soziolinguistika, euskara (Hitzal fosil) eta ekonomia:

<http://independent.academia.edu/juaninaziohartsuaga>

hartsuaga@gmail.com

Laburpena

Fonetika diakronikoa zientzia exaktotzat jo dezakegu deskribatzen dituen aldaketa fonetikoaren aldetik, eta bilakabide horien kronologia erlatiboez ari denean. Kronologia absolutuetan sartzen garenean ordea, exaktotasuna aienatu egiten da, eta norberaren sena izan ohi da haren lekua hartzen duena. Testu luzeen agerpenak estatistika baliatzeko aukera sortzen du, kronologia absolutuei buruzko bestelako hipotesiak proposatzeko. Irulegiko eskuaren kasuan zehatz-mehatz aldarrikatzen duguna da, fonetika diakronikoaren bahetik pasa daitezkeen hitz guztiak aintzat hartu behar direla eta esaldiak hartzen duen koherentzia baloratu, bestelako aurre iritziak bazter utzita. Koherentziaren balorazioa, kalkulu estatistikoak emango digu.

a) Bakoitzari berea, gizalegea

Laburpen azkar-takar samarra eginez, esan dezagun joan den mendeko lehen erdia bitarte, ohikoa zela euskararen jatorriaz idazten zutenen artean arinkeria handiko edozein erkaketa fantastiko proposatzea, axaleko antzekotasunen bat aurkitu orduko. Anabasa hartan, ongi etorria izan zen, zorrotasuna eta metodoa lagun, euskararen aitzin egoera aztertzeari ekin zion Koldo Mitxelena maisu handia. (Azkar-takarra, Mitxelenaren aurretik ere izan zelako jakintsu zorrotzik eta erkaketa fantastikoak egundaino dirautelako tamalez).

Berak azaldu zuen, besteak beste, gaur egungo hitz batek ez duela zertan izan behar aspaldian zen bezalakoa, hitzak eta ahoskerak aldatu egin ohi direlako, arau erregular jakin batzuen arabera, eta posible dela arau horiek ezagutuz gero, orain baino lehenagoko egoerak berreraikitzea. Adibide ospetsu bat aipatuz, gure gaurko *ardau*, *ardo*, *arno* forma dialektalak, lehenagoko **ardano* baten ondorengoak zirela ondorioztatu zuen, egun oraindik *ardantza* edo *ardandegi* bezalako hitzetan fosildurik zirauena.

Mitxelenak eta gerora hari jarraitu zitzaizkionak, euskararen egoera zaharragoen berreraikitzeari ekin zioten, eskura zituzten dokumentuak baliatuta, hitzen bilakaera gidatzen zuten mekanismo morfo-fonetikoak bilatuz, aztertuz eta, aurkituz gero, azalduz, argituz eta arau moduan ezarriz. Euskal gizarteak, teknika horien sakontasunak oro har gehienbat ulertzen ez baditu ere, badu

Mitxelenak ekarritako metodoaren eta zorrotasunaren pertzepzioa eta jakintsu estatusa eratziki dio haren ondorengo Euskal Filologia Ofiziala (EFO) iritzi geniezaiokeen jakintsu multzoari.

Bilakabide fonetiko erregular arautuen aurkikuntza, aurrerapauso itzela izan zen aurreko egoerarekin erkatzen badugu, baina metodoaren eta batez ere datu urritasunaren erruz, ez da halere erabat arriskurik edo hutsik gabeko jakituria, ez da matematikaren zehaztasun eztaba daezinarekin erka daitekeen zerbait, euskal filologo nagusiek hainbat aldiz gogorarazi digutenez. Honatx hainbat adibide:

It should be clear that, if in all reconstruction work the results must be taken as provisional, the specific circumstances of the Basque case force us to be very aware of the fact that we cannot go beyond a certain degree of plausibility for our proposals.
Lakarra 1995

Los límites de la metodología

Aun siendo interesantes estas cuestiones de historia externa de la lengua, nuestro propósito se entra en el análisis y discusión de determinadas estructuras escogidas de la lengua, con el fin de obtener de su estudio cierta verosimilitud sobre estadios lingüísticos más arcaicos que los habitualmente conseguidos por la investigación hasta hace pocos años.

Quede bien claro que, si en -todo trabajo sobre reconstrucción lingüística hay que aceptar muchas conclusiones con prudencia o cautela, las circunstancias específicas del caso vasco nos obligan a ser conscientes de que nuestras propuestas difícilmente irán más allá de un cierto nivel de verosimilitud. Gorrochategui&Lakarra 1996

Zuhurtzia hauek ordea, badirudi haizeak ez ote dituen eraman. Izan ere, ordutik gaurdaino ez da inolako argitalpenik azaldu, esanez, aurrerapen metodologiko hau edo bestea dela-eta, bertan behera utzi behar direla badaezpadakoak eta zalantzak, eta aurrerantzean berreraikipen teorikoen egiantza %100ekoa bailitzan ulertu behar dela. Inon ez da horrelakorik argitaratu baina praxia ordea bide horretan barrena abiatu zaigu, salbuespenak salbuespen.

XXI mendea Lazarragaren ustekabe pozgarriarekin hasi zen, pozgarria eta arazo larriegirik gabea, euskara historikoaren baitan kokatzen zenez. Hurrena ordea, Iruña-Veleiako ostrakak azaldu ziren, eta gorago aipatzen diren zuhurtziak eta tentuak baztertuta, faltsutasunaren zantzuak zabaltzeko gurutzadari ekin zitzaion EFOtik, gizarteak esleitu dion autoritateaz baliatuta, bai eta arrakastaz burutu ere. Egun oraindik, ostraken taxuzko azterketa fisiko-kimikoak egiteke diraute, faltsutasunaren hipotesia erraietaraino irentsi duten erakundeek eta gizarteak alferreko irizten dietelako. *“Egiantza maila batez harago nekez joan daitezkeen”* proposamen horiek, Jainkoaren hitz berria bihurtuta, erruduntasun presuntzioa zabaldu zuten, froga zientifikoak egin zitezten oztopatzea eragiteraino. Eta oraingoz azkena dugun ustekabea, Irulegiko eskuarena izan da. Honetan, Iruña-Veleiakoaz eskarmentatutako arkeologoek iruzurraren hipotesia zabaltzeko zirrikiturik utzi ez dutenez, eta azaldu den testua berreraikipen teorikoekin bat ez datorrenez, hizkuntza misteriotsu eta orain arte ezezagun batean idatzirik dagoela erabaki du EFOk duela gutxi. *“Egiantza maila batez harago nekez joan daitezkeen”* proposamenak berriz inork ez ditu auzitan jartzen, inork ez du, haiek berriro aztertu beharraz hitzerdirik esaten.

Aspaldiko berreraikipen teorikoek badute beste ahulune bat, inoiz gutxitan aipatzen dena, filologia honen teologia bihurtze bidean oztopo bilaka ez dadin: Kronologiarena. Bilakabide fonetiko bat bikain aztertuta egonda, eta bera gidatzen duten arauak zalantza izpirik gabekoak izanda ere, ez dago modurik (salbuespen bakanen bat edo beste alde batera utzita), aldaketa

horiek noiz gertatu ziren esateko. Gaurko hitz baten lehenagoko egoera ezagutu dezakegu, baina gehienetan ezingo dugu esan egoera hori duela mila urtekoa den, duela bi mila urtekoa den edo duela bost mila urtekoa den. Ez dakigu esaten ezta ere, hitz horren egoera horiek, gaurkoa eta lehenagokoa, elkarren ondoan bizi ahal izan diren edo zenbat denboraz bizi ahal izan diren. Horren inguruan egiten diren hipotesiak, gehienetan ez daude metodologia zientifikoan oinarrituta, filologoaren intuizioan baizik, eta beraz, dagokien balioa eman behar zaie. Mitxelenak hainbat pasartetan aipatu zuen gai hau.

En otro orden de cosas, es esencialmente correcta, a nuestro entender, la intemporalidad que Pulgram asigna a las protolenguas. La comparación, en principio, restituye fonemas y formas que sitúa de una manera uniforme en un pretérito plano, sin profundidad sin que haya mayor garantía de que se trate de fonemas y formas rigurosamente contemporáneas y coexistentes: mejor dicho, han podido coexistir durante cierto tiempo sin que su primera aparición y su abandono o cambio en algo distinto hayan sido simultáneos. KM 1990

Se ha propuesto recientemente que las protolenguas deben también fecharse, aunque naturalmente en términos relativos, no absolutos. Se trata de una definición convencional: convenimos en llamar proto-germánico a la fase de una protolengua que empieza con tales o cuales cambios y acaba cuando se producen tales otros. Una definición de esta clase es naturalmente irreprochable, pero necesariamente vaga. Tiene además el inconveniente de que, por ser arbitraria, cada uno podrá fijar sus límites de una manera distinta. KM 1990

*Creo que, de acuerdo con lo que llevo expuesto, es razonable suponer que, en algún momento, aun por fechar ni siquiera aproximadamente, existió algo que con todo derecho podemos llamar protovasco (no *protovasco) que no fue una simple vue de l'esprit ni un espejismo de la reconstrucción, como decía Kurylowicz, sino la fuente unitaria dentro de lo posible de los dialectos vascos históricos. KM 1990*

Hemen ere, harrigarri bezain irakasgarri gertatzen da Mitxelena irakurtzea eta egiaztatzea zeinen urrun dauden EFOren gaurko jarrera dogmatikoak maisuaren zalantza zuhurretatik. Mitxelenaren *gutxi gorabehera ere esleitu gabe dagoen* datatik, Irulegiko eskua idatzi zen garaian euskalkirik ez zegoela idaztera igaro gara. Egia da Mitxelenak data bat proposatu zuela balizko euskara batu horrentzat, baina garbi zehaztuta ez zuela egiten metodo zorrotz batek eman lezakeen sendotasunetik, sen hutsaren arinetik baizik, aukera txar guztien artean txukunena iritzi zionaren alde eginez, hoberik ezean. Eta azpimarratuta gainera, *koiné* edo aldaera nagusitu horren aurretik, euskalki mordo bide zegoela, edozein hizkuntzaren egoera naturala hori baita.

Si postulo, pues, un euskaro (trato de evitar confusiones molestas con protovasco o con vasco antigua, que podrían tener distinta definición) coma base hasta cierto punto unitaria de las variedades vascas históricas que nos es dado conocer a lo largo de la historia, lo hago sólo en el supuesto de que se trataba de una koiné, de una lengua común que aproximó y unió una dispersión y una diversidad que habían sido mucho mayores. KM1990

Bidezkoa dirudi galdetzea zer gertatu den urte hauetan, esan bezala, ez dagoelako argitalpen espliziturik, berreraikipenen inguruko lehenagoko zuhurtziak eta badaezpadakoak baztertu behar direla iragartzeko. Bistan da endekapen bide batean abiatu dela oro har EFOa, agian, kontraste aukera gutxi eta teorizazio asko dagoen beste edozein jakintza arlotan gertatu ohi den moduan.

Seguru asko berreraikipen teorikoek datu berriekiko erakutsi duten egokitze maila eskasak kezkatuta, iazko abenduaren 28an argitaratu zen FLV 136. zenbakian, honako paragrafo hau irakurri zitekeen, EFOko bi kide gaztek Irulegiko eskuaren inguruan sinatutako artikulu batean:

No pensamos ni concluimos, por supuesto, que un texto datado en el s. I a. C. deba ajustarse perfectamente a las reconstrucciones del protovasco presentadas y consensuadas a lo largo del último medio siglo,... Zuloaga & Ariztimuño 2023.

Gogoan hartuta 1995z geroztik berreraikipenen egokitasun absolutua zalantzan jartzen duen lehen aipamen idatzia dela, efemeride itzela da zalantzarik gabe. Halere, esaldi hutsean geratu da oraingoz, hortik berehala sortzen diren galderak ez baitira plazaratzen, eta are gutxiago noski horien erantzunak.

Berehalako lehen galdera zera da: posible baldin bada K.A.-ko I. mendeko euskarazko hitzen bat, espero dugun berreraikipen teorikoarekin bat ez etortzea, nola ezagutuko dugu hitz hori? Alegia, berreraikipen teorikoarekin bat ez datorren guztia baztertu ohi badugu, nola jakingo dugu bat ez datozen horien artean, zein onartu eta zein ez, zein euskaratzat jo eta zein ez? Hori argitzen ez den artean esaldia txorrotxio antzua da, ez du inolako ondoriorik.

Galdera horri erantzutea gakoa da, azken urteotako endekapen bidea zuzentzeko, dogmatismoari atea ixteko, metodoaren balioa eta irismena zehatz-mehatz definitzeko, baieztapen absolutuak, benetan egin daitezkeenean bakarrik egiteko, berreraikipen teoriko bakoitzaren sendotasunari, gradazio bat esleitzeko. Hitz bat, espero daitekeen berreraikipen teorikoarekin bat ez etortzea posible bada, horrek esan nahi du berreraikipen teoriko guztiek ez dutela sendotasun bera. Eta hori horrela bada, ezin dira guztiak Jainkoaren hitza bailiran erabili. Bereizten hasi beharko gara eta dagokion sendotasun maila esleitzen hasi bakoitzari.

Berreraikipenaz esan berri dugun guztia berdin edo are indar handiagoz esan daiteke kronologiari dagokionez. Ezin bestekoa da zuhurtzia eta apaltasun handiagoz berrikustea esku artean darabilzkigun esleipen kronologikoak, batik bat azaltzen diren datu berriek zalantzan jartzen dituztenean. Mitxelenari irakurri dizkiogunak irakurri ostean, Irulegiko eskuaren garaiaz zera irakurtzen dugunean

En relación a ello y, especialmente, a la búsqueda de paralelos en datos y distribuciones dialectales, no debe obviarse la modernidad absoluta o relativa de los mismos: debe recordarse que las innovaciones y distribuciones dialectales que conocemos en época histórica no van más allá del Vasco Común Antiguo propuesto por Michelena (1981/2011) y datado últimamente en torno a los siglos VIII-X.

bistan da Mitxelena berriro irakurtzea gomendatu behar zaiola hainbati.

Eta honenbestez iristen gara gutun honen azken salaketara. EFOko kideek asko dakite, erudizio handia dute, baina, salbuespenak salbuespen, ez dira zientzialari, bere buruari izen horrez iriztea oso gustuko badute ere. Erdi Aro usaineko metafora baliatuz, Zientziaren etxean Datua da jauna, Zalantza da andrea, eta Teoria berriz, morroia, andrearen agindupean jaunaren zerbitzuan diharduen morroia. Morroiak andrearen agintea arbuia dezake eta jauna bere mirabe ipini, baina hori ez da jada Zientziaren etxea izango, hori Dogmarena izango da. Zientziaren etxean datua da zerbitzatu beharrekoa. Teoria datuaren zerbitzurako dago, eta ez badu ongi zerbitzatzen, egotzi egiten da eta beste bat hobe ekarri. Datua ez dago inoiz teoria zerbitzatzeko. Datua eta teoria elkarrekin ondo ezkontzen ez direnean, teoria aldatzen da, hori baita Zientziaren etxean indarrean dagoen hierarkia.

Dogmaren etxean berriz hierarkia hori itzulipurdika iraulita aurkitzen dugu: Teoria da jaun eta jabe, eta datua, haren mesedetan diharduen morroia baino ez da. Zalantza berriz aspaldi egotzi

zuten, etxe horretan etxeoandre premiarik ez dagoela esanda. Dogma-enean, Teoria eta Datua elkarrekin ondo ezkontzen ez direnean, Datua arbuiatzen da, Teoria ez duelako ondo zerbitzatzen. Honenbestez edonork ehiki ondoriozta dezake nor zein etxetan bizi den, eta nor ari den okerreko helbidea ematen.

EFOko kideek zientzalaritzat har ditzagun nahi badute, bi baldintza bete beharko dituzte: Lehena, hizkera aldatu eta zientzialarien esamoldeetara egokitu, oker-ezintasun usainak Aita Santuarentzat utzita. Zientzialari batek ezin du esan Irulegikoa euskara zaharra ez denik edo testu hori euskaratik ulertezina denik. Zientzialari batek esan behar duena da, esatekotan, Irulegiko testua ez datorrela bat euskara zaharra berreraikitze garatu den eredu teorikoarekin, modu honetan orobat zalantzan jarriz, bai testuaren euskaltasuna, bai eta haien metodoaren egokitasuna, biak baitira ezbaian daudenak, eta ez lehena bakarrik. Eta behin eta berriz azpimarratu esamolde hori, kazetariak eta orokorrean era guztietako berriemaileek ñabardura ongi barnera eta heda dezaten. Eta bigarrena, aurrekoari lotuta, orain arte erabili duten berreraikpen metodoa edo/eta horren irismena auzitan jartzen hasi, bertan hainbat oker egon daitezkeelakoan, Zientzian, datuak teoriarekin ondo ezkontzen ez direnero egin ohi den legez. Bi baldintza horiek bete ezean jakintsu izaten jarraituko dute, baina ez zientzialari.

b) Iberiartuak eta zeltapetuak

Zer gertatu zen Bizkaiko Golkoa eta Pirinio inguruan KA-ko i. milurtekoan? Zerbait badakigu eta horretan oinarrituta, ez dakigun zatia argitzen saiatzeko lan-hipotesi bat plazaratuko dugu, ea orain arteko datuak eta etorkizunean sor daitezkeenak ardatz horrekin bateragarri gertatzen diren.

Bizkaiko Golkoa eta Pirinio inguruan KA-ko i. milurtekoan bizi zirenek, bi zibilizazio berriekin egin zuten topo. Zeltekin eta iberiarrekin. Deskriba ditzagun nolakoak ziren batzuk eta besteak.

Zeltak indoeuroparrak ziren, eta beraz, indoeuoparren moduan ekiten zioten konkistari eta asimilazioari. Indoeuopar modu hori ondo ezagutzen dugu historiari esker eta haien mitologiari darion ideologiaren azterketa bikain osatuta dagoelako G. Dumézil maisuaren lanez gerostik.

Herri indoeuroparrak arin samar deskribatu ohi dira herri konkistatzaile bezala. Noski konkistatzaile handiak izan dira, baina hori ez da haien ezaugarri nabarmena. Indoeuoparren benetako berritasun iraultzailea, asimilaziorako dakartzaten tresna ideologiko sorta da. Gengis Khan-ek edozein zibilizazio indoeuroparrak baino lurralde handiagoa konkistatu zuen denbora laburragoan, baina asimilatzeko garaian ez zuen deus ere burutu. Eguneroko hizpide arruntean bi kontzeptu hauek bereizten ez badira ere, garrantzi itzelekoa da, bata bestetik zehatz bereizita aztertzea.

Konkistak, eskuarki, zergapetzea du helburu. Borroka militarrean nagusitzen den alderdiak garaitua zergapetu egiten du eta aurrera doa bila, hurrena nor zergapetuko, zergapetu berria gainerakoan bake-bakean utzita, bere ohiko hizkuntza eta legeekin. Herri indoeuoparren kasuan ordea, tarteka horrela jardun badezakete ere, haien mitologiak erakusten duen asmoa ez da konkista hutsa, asimilazioa baizik. Eta zer da indoeuopar asimilazioa zehatz-mehatz? Bada garaituekin batera gizarte berri bat sortzea, honako ezaugarriekin: Hizkuntza eta legea, indoeuoparrek ekarritakoak izango dira, eta gizarte berri horren agintean garaituen ondorengoek ere parte hartu ahal izango dute. Indoeuopar garaipena ez da garaipen etnikoa, eredu jakin baten garaipena baizik. Horregatik indoeuoparrek ereindako asimilazioa, bertako garaituen ondorengoek burutu ohi dute. Eredu hau da indoeuoparrek dakartzaten iraultza kulturala, eta eredu honen zabaltze arrakastatsuak ulertarazten du, indoeuoparrak ibilitako

lekuetan nola eta zergatik galdu diren aurretik bertan mintzatzen ziren hizkuntzak ia-ia oro. Mitologiak iradokitzen duena, ekinean ageri baitzaigu gero, errealitatean, Nebrijaren Gramatikaren hitzaurreko pasarte honek argi eta garbi erakusten duenez: ...

después que vuestra Alteza metiesse debaxo de su iugo muchos pueblos bárbaros y naciones de peregrinas lenguas, y con el vencimiento aquellos tenían necesidad de recibir las leyes quelvencedor pone al vencido, y con ellas nuestra lengua,...

Iberiarrek, arkeologiak eta ADN frogak erakusten dutenez, iberiar penintsulako ekialdeko kostako herri autoktonoa ziren, indoeuropar nahasketa batekin. Eta haien hizkuntza zen iberiera, ez zen hizkuntza indoeuroparra. Beraz, ondoriozta dezakegu, bertako herriek eta konkistatzaile indoeuroparrek lehenbizikoz elkarrekin topo egin zutenean, oso gutxitan gertatzen den zerbait gertatu zela, hots, indoeuropar konkistatzaileak ez zirela nagusitu. Batzuen eta besteen indar-proportzioa ez zen nonbait ohikoa izan eta Indoeuroparren konkista eta asimilazio eredia ez zen burutu kasu honetan: nahasketa horren emaitza diren iberiarrek, beren indoeuropar-aitzineko hizkuntzari eutsi zioten. Halere, gainerakoan, indoeuropar eredia beste anitz aspektutan kopiatu zuten: Gizartea hierarkizatu, elite militarrek sortu, hildakoen kultura aldatu, e.a. Nolabait esateko, bere hizkuntzari, seguru asko bere legerari, eta beste zenbait ezaugarri eutsi zioten, baina aldi berean, indoeuropar agresioari aurre egiteko baliabideak eskuratu zituzten, beren kultura neurri batean aldatuz. Indoeuroparren aurkako txertoa jarri zioten bere buruari.

Gaur egun ere, baditugu mota honetako gizarte bakan batzuk: Besteak beste, European Finlandia, Hego Amerikan Paraguai, Afrikan Tanzania, eta Asian Filipinak. Gizarte-egitura arrunt indoeuroparrak dituzte, bai boterearen antolaketari bai eta indar armatuen eraketari dagokienez. Halere, ez dira hizkuntz indoeuropar batez mintzo, eta oraingoz, ez dute inoiz konkista eta asimilazio asmorik azaldu, ez eta beren hizkuntza beste inori ezartzeko desiorik ere.

Iberiarrek eta euskaldunak mugakide dira Pirinioetan eta Ebro bailaran K.A.ko I. milurtean. Harreman estuko mugakideak, gero eta garbiago ageri denez. Izaera ez-indoeuropar horrek eragiten bide du, asimilazio asmorik gabeko harreman bat abiatzea. Eta testuinguru horretan, iberiarren mugakide diren euskaldun horiek hasten dira haien ibilbide bera egiten, hots, hizkuntzari eta kultur ondare zati bati eutsiz, gizartearen egitura politikoa aldatzen, hierarkia ezartzen eta elite militarrek eratzen. Euskaldun hauek ere bere buruari txertoa jartzen diote, indoeuroparrak egurrean etorriko balira erantzuteko gauza izan daitezen. Eta hizkuntza-asimilazio asmorik ez bide dagoenez, hierarkiako jauntxo horiek, elite armatu horiek, euskaldunak dira, herri xehea bezala. Hizkuntza aldaketarik gabeko egokitzapen bat gertatzen da, gizarte hura indoeuropar giro gogorrean aurrera atera ahal izateko. Gizarte euskaldun hura osotasunean aldatzen da, ez da hizkuntzaren arabera erdibitzen, eliteak eta jende xehea herikide eta elekide diraute.

Aldaketa horri lotu dakioke halaber erlijio mailako iraultza: Jentilaroko ehorzketak alde batera utzi, eta iberiarren eredia kopiatzen dute (hauek indoeuroparregandik hartutakoa), gorpuak erretzen hasita. Gure harrespilak eta bere hedadura bitxia (Oria-Leizaran muga-ibailetatik ekialdera) ulergarri bihur litezke, euskaldun iberiartuei lotuz gero. Pirinioetako bi isurialdeetan hedatzen direnez gero, geroztik baskoi eta akitanien deritzogunen beratasuna iradokiz bide batez.

Garaiko geopolitika irudikatze ahalegin xume bat eginez, gogoeta daiteke Iberiarrek bazutela beste arrazoi bat baskoiekin harreman onean egoteko, eta hauek borrokarako ondo prestatzeko: Tapoi lana egitea, Gipuzkoan zehar Iparretik Hegoalderantz datozen zeltek Ekialdera egin ez dezaten. Eta badirudi, Historiari begiratuta, txukun samar bete zutela ekai hori.

Honen alboan eta zalantzarik gabe honi lotuta ageri zaigu inoiz aipatzen ez den beste "misterio" bat. Erromatarrak iritsi arte, akitaniar euskaldunak bere buruaren jabe baziren.- euskararen presentziak eta Novempopulaniaren sorrerak adierazten dutenez-, nondik igarotzen ziren Gipuzkoa zeharkatzen zuten zeltak? Akitaniatik, noski, ez baita beste biderik. Eta nolatan sartzen ziren penintsulako atlantiar zerrenda lizun malkar esker txarrekoan, Akitaniako lautada mugagabe oparoari muzin eginda? Bada, erantzun logiko bakarra dago: indar-harremanak hartaratuta. Arkeologiak diosku harrespilak Pirinio iparraldean zabaldurik daudela hegoaldean bezala, eta jada K.A.ko V. mendean, akitaniarrek signario iberikoa erabiltzen zutela idazteko. Gainerakoa erraza da irudikatzen: Akitaniarrak, baskoiak bezala, "txertatuta" zeuden iberiar eraginari esker. Gizarte hierarkizatu eta militartua garatua zuten, inbaditzaile zeltekiko borroka saihesten lagundu zietenak. Eta irudika daiteke halaber, gerra saiheste aldera, bide igaro-zilegia eskaini izana, zeltak Akitania zeharkatuz, Penintsulan sartu ahal izateko.

Gipuzkoako erdialdetik mendebalderantz ordea, euskaldunak ez dira txertatu. Ez dute iberiarren moduko lagunik izan. Jentilaroko usadioen arabera bizi dira, ez dute hierarkia nabarmenik sortu, ez eta elite armaturik, eta zurtz daude konkistatzaile zeltak iristen direnean. Hauek, gorago adierazi dugun asimilazio eredu indoeuropar kanonikoa aplikatuz, hizkuntza aldaketa barne duen bideari ekiten diote, konkista burutu ondoren, eta asimilazio hori, esan dugun bezala, bertako handikien bereganatzetik hasten da. Pentsatu behar da garai hartan ez dagoela bestelako biderik: ez hedabiderik, ez hezkuntza sistema zentralizaturik edo antzekorik. Asimilazioa hasten da bertako jauntxoek seme-alabak hizkuntza berrian haziz eta bide horretatik zabaltzen da gero astiro-astiro. Eredu honek ulertaraz dezake, euskalduntze berantiarraren aldekoek azpimarratzen duten euskarazko inskripziorik eza. Inskripzioak jauntxoek egiten dituzte, eta Mendebaldeko jauntxoak, asimilazio eskema indoeuroparraren biktima eta konplize izan dira. Horrek ez du esan nahi, herri xeheak euskaraz egiten jarraitu ez zuenik. Hizkuntza ordezkapenerako zeuden bitartekoak eta garaiko bizimodua aintzat hartuta, mende luzez iraun lezake hizkuntzak euskaldun arrunten ezpainetan. Non iraun zuen? Non erauzi zen? Galdera horiei erantzuteko badira hainbat bide, toponimia eta hizkuntzalaritza baliatuz, baina eliteek bertako hizkuntzari bizkarra ematea, ez da, bere horretan, nahikoa, inondik inora, hizkuntzaren desagertpen orokorra ondorioztatzeko. Ikusi besterik ez dago garai historikoetan, hainbat mendez eliteek euskarari bizkarra eman ondoren, bizirik nola iraun duen hainbat lekutan.

Euskaldun iberiarren eta zeltapetuen duela 2-3.000 urteko muga horren zantzuak oraindik ere ez ote dauden iruditzen zait batzuetan. Bai historian zehar, (Nafarroako Erresuma batetik eta Gaztelaren zerbitzupetako jauntxoak bestetik) bai eta gaur egun ere (Autoestimari, kultura modernizatze gaitasunari, hizkuntzaren balioari e.a. dagozkionak). Ba ote? Hain luzea ote da soka?